



II. ATALA
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Basauriko Udala

Alegazioen onespen partziala eta Basauriko HAPOko AI 02 Kareaga Goikoa, 9, 11, 13 jarduketa integraturako urbanizatzeko jarduketa Programaren behin betiko onarpena.

Basauriko 2024.eko martxoaren 18ko Udaleko Alkatetzak 1149/2024 zenbakiko Alkatetzaren Dekretuz, Basauriko HAPOko AI-02 (Landa doktoreen kalea) jarduketa integraturako Jarduketa Urbanizatzailaren Programari dagokionez, honako hau xedatu du:

Lehenengoa: Zati batean baiezteka Kareaga Auzo Elkartek aurkeztutako alegazioak, azalpen-zatian adierazitako arrazoiengatik, eta onartzea auzo-elkarte hori interesduna dela AI-02 Jarduketa Urbanizatzailaren Programa izapidetzeko, ebazpen honetatik aurrera, eta hari jakinaraztea aurrerantzean emango diren ebazpen guztiak.

Bigarrena: Basauriko HAPOko AI-02 Jarduketa Integraturako Jarduketa Urbanizatzailaren Programa behin betiko onartzea.

Hirugarrena: AI 02 Jarduketa Urbanizatzailaren Programaren behin betiko onarpena argitaratzea Bizkaiko Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean, programaren edukien laburpenarekin batera.

Era berean, espediente osoa eskuragarri egongo da Udal honen egoitza elektronikoan [<https://www.basauri.es>].

Laugarrena: Ebazpen honen edukia eremuaren jabe diren ondasun eta eskubideen titularrei, mugakideei, eta Kareaga Auzo Elkarteari jakinaraztea.

URBANIZATZEKO JARDUKETA-PROGRAMAREN EDUKIAREN LABURPENA
JARDUERA INTEGRATUA AI 02 KAREAGA GOIKOA 9, 11, 13 - BASAURI

Eremuaren identifikazioa:	AI 02 Kareaga Goikoa bizitegi-sektorea 9, 11, 13.
Kudeaketa-arloa HAPNn:	0 bizitegi-area.
Sailkapena:	Hiri-lurzorua.
Kalifikazioa:	Bizitegi-lurzorua.
Aurreikusitako erabilerak:	Bizitegi kolektiboak eta espazio libreak.
Etxebizitza-erregimena:	Librea eta gizarte-babesa.
Hirigintza-eraikigarritasuna:	Sestra gainean: 5.342,24 m².
	Sestra azpian: 2.748,63 m².
Jarduteko sistema:	Ituntzeko jarduketa pribatua.
Jarduerak garatzeko epea:	HAPNren 1. laurtekoa.
Urbanizazio-aurrekontua:	217.035,16 €.
Eraikuntzako aurrekontua:	6.765.068,20 €.
Urbanizazio- eta eraikuntza-obrak gauzatzeko programazioa:	Aldi bereko garapena 2 urtetan.


Jarraian, HAPNn dagoen jarduketaren fitxaren kopia erantsi da.



IKURRAK / LEYENDA

Jarduketaren muga Limite de Actuación	Eraikuntzaren gutxieneko erretiroa Retiro mínimo de la edificación	Bidegorriak Bidegorris
Antolaketatik kanpo Fuera de ordenación	Beheko solairuko merkataritza-erabilera Uso comercial en planta baja	Sestra-kota Cota de rasante
Jabari Publikoa Dominio Público	Babesgunea Protección	Eraikuntzaren muga Limite de edificación


Hiri-Lurzoruko area Área Urbana	Área Residencial 0	Integratua Jarduketa Actuación Integrada	A.I. 02	e= 1/500
Sailkapena Clasificación	Lur hiritarra Suelo urbano	Kalifikazioa Calificación	Industrial	



Lofutako lurzorua Parcela virolada	2.428,29 m²
---------------------------------------	-------------

Oinezkoen bideria Vialidad peatonal	278,44 m²	Gune libreak Espacios libres	1.195,00 m²	Etxebizitza libreen kop. Nº Viv. Libre	36
Ibilgailu eta oinezkoen bidea Rodado peatonal	38,64 m²	Ekipamendua Equipamientos	0,00 m²	Babes Sozialeku etxebizitzaren kop. Nº Viv. Protección Social	24
Ibilgailu bideria Vialidad rodada	0,00 m²	Lurzoru pribatizagarria Parcela privatizable	916,21 m²	Etxebizitzaren tasatuen kop. Nº Viv. Tasada	0
Aparkalekuak Aparcamientos	0,00 m²	Bizilegi-gunea Edificio existente	916,21 m²	Etxebizitzak guztira Total vivr.	60
		Jabetun eraldi gabeko espazio libreak Espacios libres de edificación privados	0,00 m²	Dauden etxebizitzaren kopurua Nº Viv. existentes	3
		Garajeak beheko solairuan Garajes en PB	0,00 m²	Etxebizitzaren gehikuntza Incremento de viviendas	57
				Lur gainerako eraikitako azalera Sup. Cons. Sobre rasante	6.342,24 m²
				Lur azpiko eraikitako azalera Sup. Cons. Bajo rasante	2.748,63 m²

Jarraian, JUPean jasotako mugaketaren kopia erantsi da: JUP honetan, jarduketa integratuaren mugaketa 2,18 m²-tan egokitzea proposatzen da, trenbide-jabari publikoaren mugakide den ipar-mendebaldeko muturrean.



Egintza hau behin betikoa da administrazio-bidean, eta bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa aurkez daiteke Bilboko Administrazioarekiko Auzietako dagokion Epaitegian.

Hala ere, nahi izanez gero, eta aurreko paragrafoan aipatutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, Berraztertze Errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio orain jakinarazten den administrazio-egintza eman zuen organoari, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jasotzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita. Berraztertze Errekurtso hori administrazio-isiltasunez ezetsitzat joko da, baldin eta, errekurtsoa jarri zenetik hilabete igaro ondoren, ez bazaio ebazpenaren berri ematen. Azken kasu horretan, jakinarazpen honen lehenengo paragrafoan aipatutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, administrazio-isiltasunez ezetsi zen egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Errekurtsoen araubide honen oinarri juridikoak Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan daude, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 2ko 39/2015 Legearen 114., 123. eta 124. artikuluekin, bai eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 52.1 artikuluan ere, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazketan.

Hori guztia, bere eskubideak hobeto defendatzeko egoki iritzitako beste edozein akzio edo errekurtsori kalterik egin gabe.

Basaurin, 2024ko martxoaren 20an. — Alkatea, Asier Irigorri Basaguren